

*Hil honetako aukeraketak 2019ko apirilean eta urrian **JUSTIZIAREN** balioaz argitaratutakoa osatzen du.*

Egoki dirudi horri gure arreta jartzeak, ziurgabetasun une hauetan hain beharrezkoak diren amodioa, heziketa edo elkartasuna bezalako beste balio batzuekin batera, horien aplikazio mailak markatuko baitu gizartearen norabidea.

Maitasuna justiziaren ezinbesteko osagarria da. p167

Ongiaren eta gaizkiaren aurrean, bidezkoaren eta bidegabekeriaren aurrean, ez da onartzen zalantzarik izatea. p123

Hezkuntza da ordena sozial, humano eta justu berri baten sustapenerako oinarri naturala eta ezinbestekoa. p191

Justizia nori berea emateko agintzen duen bertutea da... eta kooperatibismoak lanari lanarena dena ematen dio eta kapitalari kapitalarena dena. p281

Kooperatibek ez dute mundu itxiak izan behar, irradiazio sozialerako zentroak baizik: ez gara konkistatutako mundu batean bizi, baizik eta justizia sozialaren eta giza ordena bidezko baten aldeko gudu zelaian. p433

Gure kooperatibek, lehenik eta behin, baliagarriak izan behar dute bertan justizia sozialaren gotorlekuak bilatzen dituztenentzat eta ez beren espiritu kontserbadorearendako babespe edo leku seguruak bilatzen dituztenentzat. p461

Agintariak eta kualifikazio handiko langileak, hots, gurdi kooperatiboa gidatzen dutenak, lankidetzaren bidez honako helburu hau lortzearen arduradun nagusiak dira: enpresaren esparruan elkartasunaren zentzua txertatzea, inor behartu gabe, soilik doktrinazko edukiaren eta egungo lan munduak eskatzen duen justiziaren zentzuaren eraginez. p482